
NAPARROA'N LORATUTAKO OLERKARI BIZKAITARRA (FELIPE ARRESE BEITIA)

Euskera maite eta euskera landu dutenen artean anitz ezaguna da, gaur gorapaitn nai dutan "poeta" edo olerkari bikain au.

Ez, ainbeste. Naparroan. Bizkaitarra bait zen bera. Mingarria da, bañan euskaldnno, soilki gure esparruko euskera bakarrari lotnrik aurkitzen gara.

Erdiko euskera egiten dugunotatik, ots, Gipuzkoa-ta Naparroa'ko euskera egiten dugunotatik, geienek ez dute Bizkaierazko edo Zubererazko olerkari, idazle edo bertsolarietara ezertxo ere ezagutzen.

Eusko Jaurlaritzak du mixeablekeri galant orren erru guztia. Bai beintzat erru ikaragarri orren zatirik aundiena.

Egun batean kontatn nai nizueke, EUSKERAZAIN-TZAK Ensko-Jaurlaritzari aurkeztu zion egitarau edo programa zer-nolakoa izen zen.

Garaikoetxea zen orduan Lendakari, eta Labayen bere kultur-ministroa.

Esango dizuet, adiskide nuan Labayen orri, euskaldun guztiek lau enskalkiak aixe ikasi aal zezazketen, nik neronek begien aurrean jarri nion jokabide erre atsegiña. Manu Oñatibia, Jexux Elozegi Euskerazaintzaren idazkaria eta Lino Akesolo Euskerazaintzaren Lendakaria, uste dut, egon zirala nerekin billera artan.

Utzi dezadan. ordea, ori guztia beste egun baterako, eta itzuli nedin asirik utzi dutan ildora.

Felipe Arrese Beitia da gaur gorapaitu nai nuken olerkaria. Bizkai'ko Otxandiano'n jaio zen, 1841'garren urteko orrillaren (mayatzaren) 25'ean. Bañan, naiz bizkaitarra izan eta beti bizkaieraz bakarrik idatzi, Naparroa'rekin aski loturik agertzen zaigun gizona da. Alde batetik, olerkari bezala Naparroa'n jaio zelako, eta bestetik bere adiskiderik onena eta ats-emailerik aundiena napar bat izen zuelako: Arturo Kanpion ainzuzen.

Orra or bi gizon aundi: Felipe Arrese; Arturo Kanpion.

Arrese, Bizkai'k izen duen olerkaririk aundiena izan

zen. Bera baiño aundiagorik ez dut bat besterik ezagutzen: Lauaxeta.

Kanpion, Naparroa'k izen duen idazlerik aundiena da. Bera baiño aundiagorik ez dut inor ezagutzen.

Bizkaitar gnztiek irakurri bear lituzteke —eta buruz ikasi— Felipe Arrese'ren olerkiak. Napar guztiek irakurri bear lituzteke Arturo Kanpion'en liburuak —eta liburu oietako zatirik ederrenak buruz ikasi—.

Naparroa'tik at eta Euskalerrri guztitik kanpo ere gizon aundia dugu benetan gure Kanpion maitagarria. "El mejor narrador de la lengua castellana" zela Kanpion, esan zuen bera ere idazle bikaña zen Pardo Bazan nobelistak.

Arrese. olerkari bezela Naparroa'n jaio zela, esan dut. Elizondo'n ainzuzen: An, 1880'ean ospatu ziren euskal-jaietan. Ikns, jai aietan aurkeztu zuen olerkia. "AMA EUSKERARI AZKEN AGURRA" ipiñi zion olerki orri izen-buru. Ona bere aurreneko bertsoak:

" III da enskerea! ill da euskerea!

Betiko itxi dauz begiak...

Negar Araba. Negar Gipuzkoa.

Negar egin bei Bizkaiak...

Negar, naparrak, gure anaiak,

ta'uskaldun Frantziakoak.

Nengaz batera danok urratu

sentimentuz soiñekoak;

Eta nun dozuz, zeruko arbola

zuk zeure jantzi orlegiak?

zeure adarrak billots dakustaz,

igar, ta ezkur bageak.

Ai! Mingarria! Gaztela'ko arrak

jan dantsuz sustrai gnztia;

baita biotza, baita barruak,

azal, azur, ta mamiak".

Latiegi'tar Bixente
"Diario de Navarra"n argitaratua.